

ANGELUS **ETB'n?**

Zenbat bider, **gure** mendi ta zelaietan, solo ta landetan, baserri ta txaboletan, kale ta frontoietan entzun izan ete da Angelus'en pozikarazko oiartzun sentikorra? Otoitzik ederrenetarikoa dogu berau Liburu Santuetan oinarritzen dan otoitza. Iru aldiz, goizean, eguerdian ta iluntzean, euskaldunok «txapela erantzi ta begi biotz oinetara» gorosten **dogu** gizadiak ezagutu dauan pertsona maitagamena ta bikai-
nena: Jesukristo, Nazareteko Jesus.

Jaunaren ITZA gizon egin zan
dio ezkillak durundiz
Lur zabalean barreiatzen du
berri au zelaiez, mendiz,
millaka biotz dardaraturik
egunean iru aldiz
Oiartzun **ori** ez dut galdu nai
oroitzapenez, belarriz

«Oiartzun ori ez dut galdu nai, oroitzapenez, belarriz» inoskun Orixe aundiak 1930.ean Ordutik ona naiko gorabera ezagutu ditu gure erriak be. Alginak egin dira Angelus otoitz umilla bazterten Nok ez dau gogoan, aurtengo eskuzko txapelketan, ETBTc egin **eus-**kun zipozkeria, jendea frontoian Angelus erresetan diarduala? Ez bakarrik iragarkiak ipini, baita oneik amaitu ondoren, karta de ajuste bere musika ta guztiz be. Ni neu ez nindun telebistaren muzkeriak arritu. Badakit nondik nora dabillen ta bere estropezuak naizta mindu, ez nabe ikaratzen ETBlc jendea, zoritxarrez, ez da euskaldun geienon abotsa, naizta euskaldun **guztion** lepotik bapo bizi

Aspaldion donu desberdiiiak entzuten dira gure artean ETBlro zipozkeria edo Zaldibiko udaletxearen erabakia edo Txomin Barulloren festak, ezaugarritxo batzuk baino ez dira, gure em barman zelako • ideiak egosten diran adierazteko. Erljio ta etika maillan aldakuntza galantak sortu dira Orretaz, zeatz eta meatz egin dauskue berba euskalerriko gotzaiek, krisis orren sustraiak argitunk Nik neuk, zeozer esatekotan, onexEEK azpimarratuko neukez krisis etikoaren ezaugarri bezela moral bikoitza onartzea; bigarrena, elbide guztiak, elbumak lortzeko, legezkatat artzea, ta askenez, pertsonen kontrako atentauak, pertsonen duintasuna zapalduz, kolektibitatearen interesengaitik

Zer esanik ez, idea oneik aurrera eroateko, egin aalak egin dira kristau kontzientzia baztarten, batez be gazteen biotzetik Orretarako lenengo pausua izango da, eleizaren utsuneak gau ta egun asintzea. Ez da gauza zaiUa «Arbola guztiak, euren adar zimela». Gainera, Eleizeak ez dau inor eroango tribunaletara. here aurkako gaizki esanak gaitik Baina or azpian egosten an dana, kristautasuna euskaldunen biotzetik alboratzea izango da Euron tesisa auxe da Ez dago euskaldun jator izatenk, kristau izanez «Otso ginelarik bildots egin gaim» esango dau Jon Mirandek, Nietzsche jarraituz Kristautasuna, Orienteko doktrina bezela azaltzen saiatuko dira, euskaldunon izatearen aurkakoa balitz lez «Esan cliteke, beraz, loistautasuna, jatorriz eta pentsacraz, Asiakoa dak Munduan sinistu ala mundua ukatu. Horra hor benetako banaketa eta benetako muga. Guk europarrok bai esaten diogu munduari. eta asiatarak ez» (Huntaz eta Hartaz).

Inondikoak egingo dira gure erriaren mito zaarrak iurpe'ak ateratzen. Orra or Basajaun, Mari, Olentzero, sorginak ta abar. Urteotan jaiotako umetxoen izenali entzutea baino ez dago. Aize boiada onetan ainbatek diardu dantzan gogotsu ta euron artean ez elizgizon gitxik «Gure arteko marxistarik gogorrenak apaiztegian egonak dira». Berba oneik ez ditu Olarrak esan, Txillardegik baino.

Batzutan uste okerrez eta bestetan guzurrezko maltzurkeriz zabaldu izan dira idea oneik euskaldun kristauei kalte aundia eginez Ez dogu defenditzen,' «euskaldun fededun» danik edo izan bear dauamk Ez orixe! Esaten doguna auxe da: kristautasuna erro errotik euskaldundu dala ta batera euskaldun izatea snstraitik *sendotu, osotu ta ejpkitu*

dauak **Auxe** da euskalemko jakintsu aundienaren (JVL Barandiaran) iritxia Kristautasunetik datorkio euskaldunari bere aintza ta errespetua munduan zear. «Txapela buruan eta **ibilli** munduan» esan oi da Arrazoiz ganera Edonon ta edozetan, euskalduna errespetatua izan da bere knsta kontzientzi zintzoagaitik, Gaur **ostera**, «burunk ez ta txapela nai» esan daikegu euskaldun batzuen jokabide biurriak ikusita

Euskaldun **geienok**, gaur be, Jesukristo onartzen dogu, berarengafi zearo gizakoia dan bizitza **baten** zentzua azaltzen dauskulako. Berak erakusten dausku benetako euskaldun izaten Euskaldun kristauok ez daukagu inori gure abertzaletasuna zertan probatu. Or dago gure istoria, katoliko abertzalez eta demokrata bakezalez beteta Gure gerrarteko gudanek, esaterako, euren abertzaletasuna ta euren kristautasuna ezebezan inoiz banata Euron anditasun moralaz ta gizalegetasunez arrituta geratu zan lur guztia

Pelota jokua, Angelusen inguruan jaiio ta bizi izan da Peiota partiduan, Angelus errezauaz, danok, pilotariak ta pelotazaleok, irabazleek ta galtzaileek, argi ikusten doguna auxe da: euskaldun guztiok alkar **maitasunean** bizi izateko dei berezi bat ta ezin daikegula dei orri uko egin geure erria galdu bank. Gure emaren elburuak eskuratzeko ezin daikeguzala bide kondenagarriak onarta Ez dagola **inolako** egoerarik (irabazi nai galdu) maitatzea posible ez danilc Azken baten, Angelus otoitzak, euskaldunon trazendentzia agirian erakusten dausku. Ondo baino obeto datorkio gure erriari, gaur be, *obko* manifestapen ederra, bestelakoekin naiko naskauta dagonez

Euskaldun kristauok be Euskalema gara ta gainera erriaren zatirik^andiena, euskaldun geienok kristauak garanez Pilota jokua Angelus otoitzaren erraietan jaiio ta bizi izan da ta bere rnezu trazendentala daroa euskaldunon artean maitasuna posible dak Edozein taldetxok, edozer gauza jusufikatzeko erabilten dau erriaren izena. Ba guk be, euskaldunak garanez ta euskaldun geienak gainera, erri bezela onartzen dogu Angelus, bere mezua ona baino obea dalako **euskaldunon**-tzat Era erriaren serbitzuan dago ta ez dauko eskubidenk erri geien iritxia izurratzeko. Baliteke gure telebista, Espanakoaren antzera, bere zipozkeriekin jarraitzea Ez gara ikaritzen. Konprenitzen dogu, «astoaren agorako ezta ez, baina bai lastoa».

A. Oka